

Bandoa

Arakaldoko Udaletxeak, bosgarren edukiontzia eta autokonpostatzearen bidez, etxeko hondakinen frakzio organikoaren gaikako bilketa gehitzeko prestatu duen informazio kanpaina herritarren berri ematen du.

Bosgarren edukiontzian inskribatutako familia bakoitzak, doan eta zuzenean etxean josoko du birziklapen kita: 10 litroko edukiera daukan ontzi bat, 100 poltsa konpostagarri, kontenedorea zabaltzen duen giltza eta argibide-itsasgarria.

Ortua edo lorategia daukaten etxebizitzetara autokonpostatzea eskainiko zaie, beraien hondakin organikoekin ongarri edo konposta sortu ahal dezaten. Inskribatutako familia hauek ere doan jasoko dute autokonpostatzeko kita: konpost-ontzia, aireztagailua eta autokonpostatzeko gida, formakuntza tailerretan banatuko direnak.

Bosgarren edukiontzian landare jatorria daukan hondakinak sartu daitezke, freskoak naiz kozinatuak: fruitak, barazkiak, lekak, ortuariak, ogia eta opilak, paperezko ahozapiak, kantitate txikietan lorategiko hondarrak, fruitu lehorrak eta abar. Hondakin hauek Bizkaiko Foru Aldundiaren Konpostatze Plantara eramaten dira, non nekazaritzarako eta lorezaintzarako ongarri edo konpost bilakatzen diren.

Hauek dira izena emateko bideak: 1) Portalean jarriko den kartela; 2) Web: www.ut21.org; 3) E-maila: konposta@ut21.org; 4) Telefona 94 621 54 72; 5) Banaketa puntu finkoa, udaletxean.

Jarraian, herritarren ahalegina eskatzeko arrazoiak azaltzen dira: sortutako hondakin kantitatea modu esanguratsuan murrizteko beharra, ortu eta lorategietako lurak hobetzeko ongarri bat sortzearen abantailak, hondakinen tratamenduaren kostu ekonomikoan aurrezteak, eta ekonomia zirkularra indartzea, hau da, hondakina baliabide bilakatzea eta materiaren zikloa ixtea.

Alkatea